

IRITZIA

Jokin Martinez

ERREPORTAIA

Ingeles ikasketak
lau urtetik aurrera

BARREN

1997ko maiatzaren 9a
V. urtea - 193. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

KALE INKESTA

Zenbat hizkuntza
menperatzen
dituzu?

UDALETXETIK

Euskararen
erabilerarako
trebatzailearen
figura sortu da

GEHIGARRIA

Kale zuloak
baserrira

BERBETAN

Alejandro González

KIROLA

Egoitz Mora,
Euskadiko judo
txapelduna



Ingelesa
umetatik ikasten

“Gu zer bai t bager a eta, gauden toki ti k, hemendi k bert an, sai a gai te zen

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK SALGAI



Etxebizitza bakarra

gelditzen zaigu

**EZ GALDU
AUKERA HAU!**

**INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:**

20 83 16


ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*%10eko
deskontua*





JOKIN MARTINEZ

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Inkomunikazioa

Artikulu hau BARREN astekariko bulego eraman orduko, kazetariak orria hartu eta ordenadorean sartuko du, aste honetako zenbakian ager dadin. Aurreneko artikulua ordenadorez idazten saiatu nintzen, baina ezinezkoa egiten zitzaidan hiru lerro segidan idaztea nahigabe botoi bati eman eta artikulua trastera bidali gabe. Horregatik, hemendik aurrera nire artikulua makinaz idatziko ditut.

Ordenadoreak gaur egungo lantresnak dira eta etorkizuneko tresneria bakarra izango dira. Dakigunez, gaur egun, aro teknologikoan bizi gara, baina XX. mende bukaerako urteak aro informatikokoak izango dira, batipat. Informatika inguru ekonomiko eta sozial guztietan integraturik dago. Heziketa arloan duen tarte oso garrantzitsua da gainera. Gaur egungo gazteria zeharo informatizaturik dago. Merkatuak eskaintzen duena ere oso zabala da, forma eta tamaina guztietako ordenadoreak, inpresorak, programak, ikastaroak, eta ez dugu ahaztu behar INTERNET famatua.

Beraz, ikusten denez, ordenadorea aurrerabide izugarria da, baina desabantailak ere badiitu. Hemendik urte batzuetara ez da beharrezkoa izango etxetik irtetea lanera joateko. Etxetik bertatik egin ahal izango dugu lan, bulegoarekin hogeita lau orduz egongo baikara kontaktuan. Eta ez bakarrik lana, baita ere erosketak, eskutitzak, medikuaren kontsultak etab. egin ahal izango dira. Baina nire ustez abantaila hauek guztiak oztupo nagusi bat dute: INKOMUNIKAZIOA. Txanpon bereko bi aurpegiak dira. Alde batetik, edozein momentutan lurreko

edozein bazterrekin kontaktuan egongo gara baina aldi berean, hau dena egiten ari garen bitartean, ondenadorearen pantaila edukiko dugu aurrean. Beraz, ez dugu gure familia, lagun edo ezagunekin elkartu beharrik; badugu hori bero-ri modu erosoagoan egingo digun makina.

Baina gehiegi erabiltzen duenak INKOMUNIKAZIOaren ondorioak sufrituko ditu. Ahaztu egingo zaio zer den lagun bat besarkatu, zoriondu edo momentu txarretan doluminak ematea. Ondendoreek ezin dute sentimentu hauek garraiatu, nahiz eta hitz goxoan idatzi ordenadorearen pantailan. Gainera, makinaren arteko komunikazio bat izango da soilik.

Ikusten denez, erraz komunikatzen gaituenak modu berean inkomunika gaitzake.

Ni ez nago ordenadoreen kontra. Lan-tresna bezala abantaila mordoa dituela onartzen dut. Nire artikulua honetan zera salatu nahi dut: gaur egun eta aurrerantzean ordenadoreei emango zaien garrantzia

gure gizartean. Agian, ordenadore bat manejatzen ez dakiena diskriminatua izango da.

Gogoratu ordenadore bat makina bat dela soilik eta betidanik, guk, pertsonok, ez dugula onartzen makina bat gure gainetik jartzea. Guk geuk sortutako makina inoiz izan daiteke gu baino gehiago. Dena kontrolpean eduki behar dugu eta arazo larri honek buruhauste handiak ekar diezazkiguke.

Beraz, erabili ordenadorea behar den neurrian eta gero ahaztu zaitez berataz: kalera irten, mendira, zinera, liburutegira, kirola egitera etab. Askoz zoriontsuagoak zaretela ikusiko duzue.

“Agian, aurrerantzean, ordenadore bat manejatzen ez dakiena diskriminatua izango da”



laburpena: 2000 urte eta gero, jentilak lurraren azalera irtengo dira kixmi, @uren gartzelaria, akabatzeko aginduarekin...





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEAK

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Guilló, Jon Gurrutxaga,

Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi,

Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa



Gazte Asanblada eta Udalaren arteko harremana eta Alkortako iruzurtiei buruz

Hiru hilabete dira Udalarekin el-karrizketak hasi genituela. Hiru hilabete luze gauzak nola joan diren ikusita, lehenengo astetik gaur arte ia astero izan ditugun bileretan adostasuna erabatekoa izan baita puntu garrantzitsuetan,

Gazte Batzordeak gai batzuri buruzko ardura agertu zigun eta guk gure jarrera erakutsi; arazo handiegirik ez zen izan eta ondorioz behin-behineko lokala lortzea baino ez da geratzen. Lokal honek eskatzen dituen berezitasunak ikusita abenduan okupatu genuen lokal berera joko genuela erabaki zen, eta gauzak okertzen hasi ziren. Ordutik hona ezer gutxi dakigu nahiz eta hiru bileretan elkartu garen; gauzak harri-garriro ari dira aldatzen:

Alkortak lokala salgai duela... Oraindik ez dagoela salduta... Ez dakitela nor den baina dena delako erosleak eraikuntza botako duela... Eta azkenik BARRENEko titular hura. Alkortan ez omen da Gazteterik izango. (Berri hau erredaktatu zen egun berean izan genuen Gazte Batzordearekin azken bilera, eta guri ez ziguten horrelakorik esan). Atera kontuak...

Ordutik hona, hirugarren astera goaz bilerarik gabe. Tartean, bertan behera utzi duten bilera bat dago, bai eta Elgoibarko gazte bati Eibar-ko epaitegian hartutako deklarazioa ere. "Kalteak eta bidegabeko jabetzea" salaketapean. "Kalteak?" Haiek herriaren erdian abandonatuta zuten eraikin arriskutsu bat garbitu eta txukuntzea besterik ez genuen egin eta. "Bidegabeko jabetzea?" Beraienak ez diren gauzakin gelditu diren bakarrak Alkorta eta Unzueta izan dira, oraindik gure materialaren zati handiena haien lokalean bahiturik baitute. Gure proiektua azaltzera joan ginenean haien ordezkariak sa-

laketa kendu zutela eta erantzungo zigitela esan ziguten. Guk itxoitzen genuen bitartean, beraiek itxiera prestatzen zuten. Iruzurtiak!!

Nola ez, ezin da ahaztu arazoan Udalak izan zuen partehartzea. Materialaren zati bat gordetzeko lokala utzi zuten, brigadilla nahasi nahi izan zuten eta hauek ezezkoa eman zieten, eta Tecnipe-koei deitu zieten Gazteterako zenbait gauza ateratzeko (ez dituzte kartelak eta pintadak soilik kentzen). Azkenik, epaileari materialaren bila joan zen mutilaren izena eman zioten.

Guk asanbladekin darraigu eta hala jarraituko dugu. Azkenaldiko gai nagusia Udalarekin eduki ditugun harremanen gainekoa izan bada, gauzak dauden bezala, hemendik aurrera zein neurri har daitekeen erabakitzen hasi beharko dugu.

Dei egiten diogu Elgoibarko gazteriari, nola asanblada hauetan, hala etorriko direnetan, parte har dezan.

Elgoibarko Gazte Asanblada

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

GALDERAK

◆ Irakurle batek zera jakin nahi du: **“Zergatik jai-zubia denean ez da BARRENik egoten?”**

BARRENezko zuzendariaren erantzuna: **BARRENezko urtean 45 zenbaki kale-ratzen ditu eta horren**

arabera egutegi bat diseinatzen da. Aurten ere 45 ale izango dira, nahiz eta joan den astean alerik ez egon. Gainera, jai-zubietan, hiru egun daudenean ezinezkoa izaten da aldizkaria egitea.

KEXAK

◆ Errosarioko auzotar batek honako kexa hau dauka: **“hamabostero aparkatzeko aldea aldatu** egiten da Errosario kalean, orain eskuman, orain ezkerrean. Baina **jendeak ez du errespetatzen**. Lehengo egunean udaltzainei deitu nien gaizki aparkatuta zeuden autoak zirela-eta. Bertara agertu zen udaltzainak ezer egin gabe egin zuen alde”.

◆ San Pedrotik Arratera bitartean pasiaran ibiltzen diren herritar batzuen kexa da hau: **“Aubixako baserriko arduradunei kanpoan jartzen duten musika altuegi** egoten dela aditzera eman nahi diegu. Inguruetan ibiltzen garenoi txorien eta kilkirren hotsa entzutea gustatzen zaigu eta ez Aubixako bozgorailuko musika. Hortaz, bolumena jaistea eskatu nahi diegu”.

◆ Erretxindi kaleko auzotar baten kexa: **“Auzoko batek, inguruan zegoen olibondo eder bat moztu zuen** besterik gabe.



Auzotarrak elkartu eta salaketa jarri dugu Udalean, hala ere, publikoki salatu nahi dugu zentzurik gabeko ekintza hau. Iaz 3-4 kilo oliba eman zuten arbola horrek”.

TXALOAK

◆ Apirilaren 25ean Elgoibarko Izarrak antolatu zuen **Kafe Usainean** egon ziren emakume batzuek zorionak eman nahi dizkiete antolatzailerei bai eta partehartzaileei ere, benetan saio polita izan zelako”.

◆ San Frantzisko kalean bizi den herritar batek **Urgazi Triathloi taldea txalotu** nahi du Elgoibarko duathloia benetan ondo antolatu zuten iritzikoa delako. “Kalieta zintzak eta ballak jarri zitxutzen, oinezkuak ertzetik ibiltzeko eta saltakarixeri trabarik ez eitzeko. Detalle oso aproposa beintxatzen jata”.

BAI, ESAN?



Arantxa Armendia

Gaixoen Pastorekoa

Maiatzaren 4an Gaixoen eguna ospatu zen. Elgoibarren hala ere, aurreratu egin ziren eta hilaren 3an, zapatuan, ospatu zuten. Gaixoez ere euren eguna izatea polita bezain bitxia dela iruditu zaigu eta horregatik deitu diogu **Elgoibarko Gaixoen Pastoreko kide den Arantxa Armendiari**. Ikus dezagun zer kontatu digun.

- **Zergatik ospatzen da Gaixoen Eguna?** Elizak antolatzen du maiatzean Estatu osoan. Gaixoez gure maitasuna behar dutenez, zer gutxiago euren zuzendutako egun bat antolatzea baino. Gaixoez hor daudela eta gure arreta eta maitasuna behar dutela kontuan har dezagun ospatzen da. Aurten Adineko Gaixoaren Eguna ere izan da, “Zaindu ezazu maitasunez” lemapean.

- **Zein lan egiten du Elgoibarko Gaixoen Pastoreak?** Etxetik irteten ez diren gaixoez bisitatu, ospitalean daudenak... Pastoreko zenbait kidek Lourdes-era egiten diren peregrinazioetan laguntzen diete gaixoei, animoak emanez eta laguntza eskainiz. Laguntza berezia behar duten gaixoentzako ere laguntzen diegu, adibidez, gaixoa etxean bakarrik ez uztearren kalera irteterik ez duten familien kasuetan, gure laguntza eskaintzen dugu gaixoa zaintzeko.

- **Zenbat gaixo dago Elgoibarren?** 130 bat. Gehienak bakarrik bizi diren edadetuak dira, beren kabuz mol-datzerik ez dutenak. Badira gaixo gazteak, familiaren eta beste talde batzuen laguntza dutenak.

- **Gizarteak baztertuta al dauka gaixoez?** Ez. Gizarte osoa sentsibilizaturik dago. Gazteak animatu nahi ditut laguntza talde hauetan parte har dezaten. Gaixoez alaitasuna eta bizitzeko gogo behar dute. Denon artean sentimentu hori transmititu dezakegu, gure maitasunaz ingururaturik sentitzeko. Gazteok dugu bizitzeko “txispa” eta gaixo guztiei igorri behar diegu “txispa” hori. Lerro hauen bidez, GAZTERIA OSOA animatu nahi dut.

Jon Aranoa
Gillermo Torres



Albaitaritzza
klinika



San Roke, 26 • Elgoibar • TEL: 74 07 04 – 908 87 39 40

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

Ingelesa ikasten lau urtetik hasita

My name is.... One, two, three.... This is a house. Hello! How are you? Esaldi hauek guztiak lehenago edo beranduago entzun eta ikasi behar izan ditugu. Izan ere, gaur egun badirudi ingelesik gabe mundu honetan ezin garela eroso ibili. Lana topatzeko orduan, esaterako, gero eta gehiago baloratzen da atzerriko hizkuntza hori menperatzea. Arrazoi desberdinak tarteko, kontua da gero eta lehenago hasten direla gazteak ingelesa ikasten. Elgoibarren, konkretuki, 4 urteko haurrekin hasten dira lehen ingeles metodologiak.

Estitxuk eta Xabierrek 9 urte dituzte eta aurten hasi dira ingelesa ikasten, “kantua eta numeruak. 30era arte dakigu ingelesez kontatzen”. Biei asko gustatzen zaie ingeles klasea, “jolastu egiten dugulako, eskulanak, antzerkiak...”

Pilar ikastetxean Arrate Iriondok ematen du ingelesa. 1996-97 ikasturtean ekin diote Lehen Hezkuntzako 1go mailako haurrei ingelesa irakasteari, “oin arte hirugarren mailan hasten ginan, zenbat eta lehenago hasi orduan eta errezo asimilatzen dabe”. Izan ere, adin txikietan haurrak oso irekiak daude berrikuntza suposatzen duen guztira, “eta horri gehitzen badiozu klaseak oso arinak direla, emaitza benetan positiboa da”.

Arratek azaldu digunez, “helburua ingelesarekin lehen kontaktua izatea da. Horretarako, eskulanak egiten ditugu, abestiak entzun, antzerki txikiak prestatu...”. Azken finean helburua ingelesa gauza atsegina izatea da, “haurren artean motibazioa sortzea”. Espresioaren bidez adierazten dute zer esaten ari diren, “itzulpenik egin gabe ulertu behar dute zertan ari garen. Lehen teoria

eta gramatikarekin hasten zen ingelesa irakasten eta gaur egun ikusi da askoz hobea dela mintzamina lantzen hastea, hizkuntzari gustua hartu eta gerora gramatikari heltzea”.

Ingelesa CD Room-ean

San Bartolome ikastolan 4 urtetik aurrera hasten dira haurrak ingelesa ikasten. Rita Zabala dute ingeles irakaslea. Duela 5 urte hasi ziren Artigalen metodologiarekin. Honen arabera, ingelesa ikasteko prozesua ez da gauza teoriko eta gramatikala

“Ama hizkuntza balitz bezala, ingelesa ere konturatu gabe asimilatu eta barneratu behar da”

izan behar, “haurrak txikia denetik, oraindik ikasten ari denaz oso kontziente ez denean, barneratu behar ditu lehen urratsak. Ama hizkuntza balitz bezala, ingelesa ere konturatu gabe asimilatu eta barneratu behar da”.

Artigalen metodologiak espazio eta denbora konkretuak ditu eta istorio desberdinak lantzen dira, “testo bat, istorio bat daukagu eta hori espresatu egin behar da. Semizirkulu batean esertzen gara guztiak eta banan-banan istorio txikiak azaldu behar dituzte”. Metodologia honekin haur guztien inplikazioa lortzen da, “guztiak azaldu behar dute zerbait, den-dena ingelesez. Nik neuk ere den-dena ingelesez azaltzen diet”. Nahiz eta haurrek ez jakin zer ari diren esaten, zein den hitz bakoitzaren




Pilar ikastetxeko haur talde bat antzerki bat ingelesez antzezten.

esanahia, “dena ulertzen dute. Istorio bakoitza hiru egunez errepikatu eta gero erlazionatu egiten ditugu hitzak eta irudiak, aurretik hitzez esaten genuena gero irudietan ikusiz”. Artigalen metodologia lau eta bost urteko haurrentzat pentsatua dago. Gero Lingua proiektuarekin hasi ziren, 2. mailatik aurrerakoei zuzendua, eta gaur egun, Linguarekin hasi zirenek Sokrates metodologia erabiltzen dute eta Lingua lehenengo mailako ikasleentzat egokitu dute. Artigal, Lingua eta Sokrates oso antzekoak dira, “hirurak ildo bereko proiektuak dira, ama hizkuntza ikasteko erarik gertueneko metodologia landuz”.

Istorio eta antzezpene inguruan moldatutako metodologia da, “horregatik, haurrek hizkuntza ikasteaz gain espresibitatea ere lantzen dute, guztia inhibiziorik gabe”. Metodologia honek, berritzailea izateaz gain, punta-puntako teknologia du euskarri, “izan ere, istorio guztiak CD Rom-ean datoz eta”.

Kaskoak eta bideoa

Gelara sartu ginenean argazkiak ateratzera, haur guztiak ilaran zuden, tente, eta irakasleak abesti bat jarri zien ingelesez. Ume bakoitzak kolore bat zuen eta abestian kolore horren izena entzuten zuenean besoa altxatu behar zuen. Herri Eskolan aurten hasi dira lehenengo mailatik ingelesa irakasten. Nerea Cerrejón



Herri Eskolako irakaslea eta ikasleak ingeles klase batean.

ingeles irakasleak azaldu digenez, “haurrek adin horretan duten ahalmena aprobetxatu nahi genuen. Txikiak direnean askoz errazago asimilatzen dute dena”. Logikoki, txiki-kin lan egiteko beharrezkoa da klaseak ahalik eta arin eta dinamikoek izatea, “6 urteko ume bati ezin diozu esan bi edo hiru aldiz segidan jolas berdina egiteko, aspertu egiten da eta. Horregatik, formula berriak topatu behar dira. Gaur egun oraindik ez dago material gehiegi haurrei ingelesa irakasteko eta eskualdeko irakasleak elkartu egiten gara guztien artean gauza berriak sortzeko”.

Dinamikotasuna da, beraz, haur txiki-arten ingelesa irakasteko formularen sekretu bat. “TPR activities deritzanak lantzen ditugu. Nik zer-

“Txiki-ekin klaseak arinak, dinamikoak, biziak izan behar dira”

bait esaten diet ingelesez eta haurrek hori egin behar dute. Helburua gutxieneko komunikazioa egotea da”. Gramatikarekin aurrerago hasten dira, “idatzi baino lehen irakurtzen hasten dira baina lehenengo gauza ahoskera da, hitzegiten soltatzea. Eta hori da zailena, ume bati ezin baitzaio forzatu”. Txiki-ekin izan ditzaketen abantailak hizkuntza ikasterako orduan badu pega txiki bat ere, “adin horretan askoz errazago ahazten zaie, ez dute 6. mailakoek bezala retenitzen, gehiagotan errepikatu behar zaie”. Halere, motibazio askoz handiagoa dute 6 urteko umeek, “gainera, entzumena lantzerakoan bideoan marrazki bizidunak ikusten ditugu eta asko gustatzen zaie. Beste batzutan, abestiak entzuteko kaskoak jartzen dituzte eta horrek guztiak asko motibatzen ditu”. Interesa azaltzen duten bitartean prozesua bide onetik doala esan daiteke.




Ikastolan lau urtetik aurrera hasten dira ingelesa ikasten.

Zenbat hizkuntza menperat- zen dituzu?



ARRITXU ZIALZETA
10 urte, ikaslea

Hiru: euskara, erdara eta ingelesa. Euskara gehixen, erdara piskat gitxixo eta ingelesa.... Ingelesa 4 urtekin hasi nitzan ikasten.




AQUILINO GARCIA
53 urte, fresadorea

Gaztelera bakarrik. Interesa bai baina sekula ez dut aukerarik izan hizkuntza gehiago ikasteko, bizitza osoa lanean eman dut eta. Gaur egun desberdina da.



AMAIA REZOLA
18 urte, ikaslea

Euskera, erdera, inglesa eta oin alemana ikasten hasi naiz. Turismo ikasi nahi dot eta zenbat eta hizkuntza gehixo jakin, hobeto. Laster frantsesak in hasiko naiz.



LEIRE SANCHEZ
15 urte, ikaslea

Euskera, erdera eta ingelesa baina gitxien inglesa. Udan frantsesa eta alemanakin hasteko asmua dakat, ze gero sekretariado ikasi nahi dot.



MARTIN ALBERDI
68 urte, jubilatua

Bat eta bera gaizki: euskaria. Erderia zeozer eitxen dot, defendatzeko lain. Badakizu, guk ez gendun eskolara juteko aukerarik euki eta...



ERNESTO ARBERAS
33 urte, administraria

Menperatu bakarra: gaztelera. Ingelesa eta frantsesa ikasi ditut eta defendatzeko beste badakit baina sekula ez naiz buru belarri aritu hizkuntzak ikasten.



Hizkuntza berrien ikasketa eta ezagutza

Egungo komunikabideak direla medio, telefonoa, faxa, ordenadoreak, telebista interaktiboa, internet etab., ez da harriztekoa gure munduko distantziak lehen baino askoz errazago gainditzea. Beti ere, komunikabideak eta komunikazioa lotuta daudela kontuan harturik, atzerriko hizkuntzak jakiteak garrantzia hartu du, bai lan arloan bai eta aisialdian ere. Nork ez du atsegin herrialde berriak ezagutzea eta ahal izanez gero, bertako jendearekin hitz egitea?

Hala ere, hizkuntza berriak ikastea ez da lan erraza. Beharbada horregatik, jende askok amore ematen du ikasketak "bukatu" baino lehenago. Berez, oso zaila da hizkuntza berri bat noiz menperatzen den jakitea. Ulertzea eta hitzegitea urteetako lana izateaz gain, beti gelditzen da hutsuneren bat (esamoldeak, gramatika, ortografia, entonazioa, hiztegia,...).

Hau gutxi balitz, hiz-

kuntza izaki bizi dela pentsatu behar da. Atsedetik gabe aldatzen, aberasten eta berritzen den izakia.

Dena den, hizkuntza berrien ikasketa eta ezagutzak halabeharrezkin du zerikusi handiagoa atseginarekin baino. Ez da kasulitatea gaur egungo umeak lehen zikloan jadanik, ingelesa ikasten hastea, eta aurrerago, bigarren hiz-

kuntza atzerriar batekin saiatzea, gehienbat frantsesa, alemana bai eta italiera ere.

Hizkuntzek lan merkatuan baliogarri izateaz gain, beste kultura batzuk hobeto ezagutzen laguntzen dute. Horrela, goian aipatutako hizkuntza internazionalak jakiteak, ekonomikoki garrantzitsuak diren herrialdeetako

ateak zabaltzen dizkigute. Baina ezin dira baztertu hizkuntza minoritarioak beraien aberastasuna ahaztuz. Adibidez, ezagutzen direnen artean zaharrenetarikoa den euskara.

Maite Barandiaran



"Atzerriko hizkuntzak jakiteak garrantzia hartu du. Baina ezin dira baztertu hizkuntza minoritarioak, zaharrenetarikoa den euskara, esaterako"

iSPILUA- BERI DEGIRA



**Rosa Maria
Iglesias**

**CASCANUECES
dendakoa**

- Zer da artea? - Natura.
- Egurrez eginiko zeri emango zenioke bizitza? - Marko bati, argazkiek ere bizitza gehiago izango lukete eta.
- Zein kolorez margotuko zenituzke Elgoibarko kaleak? - Bakoitza kolore batez, kolore suabeak eta fuerteak konbinatuz.
- Bizitza kolore-paleta bat balitz, zein elementu sartuko zenituzke? - Adiskidetasuna, zintzotasuna eta maitasuna.
- Ajatuta dagoen zein balorek behar du barniz piskat? - Gehienak nahiko galduta daude eta guztiei komeniko litzaieke disdira piskat.
- Zein altzari izan nahi zenuke? - Siloi bat.
- Asmakizun onena? - Argia.
- Mundua pintzelada txikiz ala haundiz begiratzen duzu? - Haundiz, gauzak orokorrean begiratzen ditut.
- Zein plazerri egingo zenioke uko? - Erretzeari uztea komeniko litzaidake.
- Zein pintoreren kuadro bat izan nahi zenuke etxean? - Van Gogh-en "Girasolak".
- Zein gaitasun izan nahi zenuke? - Eskultura oso handiak egitea gustatuko litzaidake.
- Estresatua zaudenean zer egiten duzu erlaxatzeko? - Butakan etzan eta ezer egin gabe egon.
- Denboran atzera ala aurrera bidaiatuko zenuke? - Aurrera, ez zait gustatzen iragana begiratzea.
- Oporretarako toki bat? - Caribea.
- Aisialdia pasatzeko erarik onena? - Margotzea.
- Zer izan nahi zenuke etxeko lorategian? - Loreak eta zuhaitzen bat, zume negarti bat edo.
- Makilatzen al zara? - Ez.
- Eguraldi euritsu ala eguzkitsuak? - Eguzkitsuak.
- Zein opari jaso nahi zenuke? - Bidaia bat.

● Lapurreta Astigarraga kioldendan

Asteazkenetik ostegunera bitarteko goizaldean lapurreta gertatu zen Errosario kaleko Astigarraga kioldendan. Jabeak esan digunez, atea apurto zuten lapurrek dendara sartzeko. Kajako diruaz gain, kirol material ugari ere harrapatu zuten, zapatilak, txandalak, alkandorak etab. 400.000 pta. inguruko galerak denera.

● Ezinduentzako laguntzak

Udal Ongizate Sailak ezinduentzako laguntza programan izena emateko epea ireki berri duela jakinarazi nahi du. Era berean, aurreko urteotan bezala, Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazioak oporraldi programa antolatu du Aldundiko Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin. Batean zein bestean izena emateko aurrez txanda hartu behar da 74 10 08ra deituta.

● Kiroldegiko terraza-solariuma irekita

Joan den asteartean ireki zen Kiroldegiko terraza-solarium zerbitzua. Bazkideek eguzkia hartzeko aukera izango dute doan, eta bazkide ez direnek 200 pta. ordainduta, honako ordutegi honekin: goizean 10:00-14:00etara eta arratsaldean 15:00-19:30etara.

● Elgoibarko Itzulia

Morkaikok hil honen 18rako antolatu du Elgoibarko mendiak inguratuz egiten den itzulia. Ibilbidea 9 ordutakoa izango da eta bukaeran luntxa emango zaie partehartzaile guztiei. Izena emateko 74 02 97ra deitu ostiral arratsaldean, larunbat goizean edo egunean bertan.

● Lagunak, Herri Arteko Pilota Txapelketatik kanpo

Elgoibarko Lagunak Pilota Eskolako hiru bikoteak Herri Arteko Pilota txapelketatik kanpo geratu ziren joan den hilaren 25ean zaldibitarren aurka Ikastolan jokatu zuten bueltako partiduen ostean. Bestetik, maiatzean zehar hasiko da Lagunak Pilota Txapelketa alebin, benjamin eta infantil mailetan. Kategoria guztietan banakako pilota partiduak jokatu dira eta alebinetan binakako modalitatea ere izango da, elgoibartar pilotarientzat ezezik, Deba arroko guztientzat ere.

Gaixoen Eguna ospatu zuen hilaren 3an Elgoibarko Gaixoen Pastoralak

Elgoibarko Gaixoen Pastoralak gaixoei eskainitako eguna ospatu zuen joan den zapatuan. 40 bat lagun elkartu ziren San Bartolome parrokian izan zen mezara joateko asmoz. Egun polita pasatu zutela adierazi digute antolatzaileek, giro ezin hobea egin baitzuen. Txarridunak izan zuten lagunarteko afariarekin eman zioten eguneko ospakizunei amaiera. Argazkia Txarriduna jatetxearen aurrean ateratu genuen.

Gaixoen Pastoralak duela urte mordoska bat hasi zen herriko

gaixoei lanean. Parrokiaren baitan sortutako elkarte da, gaixoei era guztietako laguntza eskaintzeko asmoz eratua. Gaur egun dozena bat lagun dira gaixoei lanean aritzen diren elgoibartarrak. Gaixoak bisitatu, hauen senitartekoei laguntza eskaini eta, azken finean, euren esku dagoen guztia egitea da elkarrekin zereginak.




LAB eta ELAren arteko harremanak aztergai

Kimetz elkarteak, joan den hilaren 25ean LABeko ordezkari baten hitzaldiarekin eman zion hasiera hilean behin izango diren hitzaldi saioei. LABeko Rafa Díez zegoen hitzaldira gonbidatuta baina Arnaldo Otegi adierazitakoaren arabera, LABeko burua Audientzia Nazionalera joateko deituta zegoenez, Txomin Lorca, ekintza sindikaleko eta ejekutibako buruetariko bat dena etorri zen Díezen ordez. Arnaldo Otegi legebiltzarkideak egindako aurkezpenaren ostean, Lorcak ELA eta

LAB euskal sindikatuen arteko batasunari buruzko hausnarpeneren eta balorazioaren berri eman zien aretoan bil-

du ziren 30 bat lagunei. Hil honetarako, ELAko kide baten hitzaldia antolatzen ari da Kimetz elkarteak.





Ikastolako ikasleak, Ingalaterran

Ikastolako BBBko 2. mailako 19 ikasle Ingalaterrako Litherland izeneko eskolan, Sefton-Merseyside-ko kondadoan, astebeteko egonaldia igaro zuten apirilaren 14tik 27ra bitartean. Sokrates proiektuko *Lingua* elkartrukeen barruan, bi taldetan banaturik joan ziren, batzuk aste batean eta besteak hurrengoan. Bertako historia, biztanleak, ikasleak etab. eza-gutzeaz bat, ingelesa praktikatzeko aukera izan dute.



Euskaltegiko ikasleen egonaldia Zarautzen

Udal Euskaltegiko EGA taldeko 14 ikasle eta euren irakaslea Zarautzeko aterpetxean izan ziren apirilaren azken astuburuan. Irteeraren helburua egun horiek euskaraz bizi eta jardutea zen. Egonaldian txakolindegia bat bisitatzeko aukera izan zuten, eta argazkian ikusten den bezala, egindako bisitetako bat "Argiñano" sukalde-eskolara izan zen.



Barakaldoko Institutukoak BARRENen bisitan

Apirilaren 25an, Barakaldoko 24 ikasleko talde bat BARRENen izan zen bisitan. Ikasleak Herri Institutura etorri ziren eta egunotan elgoibartarrak Barakaldon izan dira. Argazkian Barakaldoko eta Elgoibarko ikasleak.



70 elgoibartar Galiziara txangoan

Jubilatuak Etxeak antolatu zuen 7 eguneko irteeran 70 bat lagun izan ziren. Jubilatuen Etxeko zuzendaritzako kide batek esan digun bezala, "ederki pasatu dugu. Hotela zoragarria, eguraldia ere bai...". Toki mardoska ikusteko aukera izan dute: Vigo, Pontevedra, Orense, Coruña, Portugaleko txoko batzuk, Rias Baixas eta nola ez, Santiago de Compostela. Argazkian, elgoibartar kuadrila Santiagoko Obradoiro katedralaren aurrean.

● Lehergailua PSEko egoitzan

Joan den apirilaren 24tik 25erako goizaldean, lehergailu txiki batek eztanda egin zuen PSE alderdiak Urasandin duen "Casa del pueblo" delakoan. Udaltzaingotik esandakoaren arabera, "lehergailua potentzia eskasekoa zen eta gauerdiko 12:30ak aldera egin zuen eztanda egoitzaren kanpoko aldean. Leihopean zegoen kokatua eta kalteak txikiak izan ziren, leihoko pertsiana erreta besterik ez". PSEkoen egoitzak jasaten duen bigarren eraso da hau.

● Bilera Urruzunoko etxeei buruz

HBk bilera informatiboa antolatu zuen asteartean Pedro Murguruza eta Artetxen bizi direnei zuzendua, "Urruzunoko proiektua zertan datzan azaltzeko". Pello Mendizabalek adierazi digunez, 30 bat lagun bildu ziren eta kezka oso handia da. "Batetik, Ikastolatik Artetxe goiko etxetaraino, protekzio ofizialeko 8 bloke eraikiko dira, 5 pisukoak bakoitza. Hauen jarrarian, Altzola aldera, etxe unifamiliarren ilara bat eta etxebizitza arruntan beste ilara bat, eta bukeran, protekzio ofizialeko torre bat". Guztira 270 bat etxe berri izango dira. Pelloren hitzetan, "auzotarrak oso kezkatuta agertu ziren, batetik autopista, trenbidea, kalea eta ibaia direla-eta, nahiko kongestionatua dagoelako zonaldea, eta esparzimendurako dauden terreno gutxiak kentzea suposatuko lukeelako". Bestetik, Artetxe goian bizi direnak oso kezkatuta agertu ziren euren etxeen aurretik pasatuko den errepide berria dela-eta. "Udalak eta Eusko Jaurlaritzak protekzio ofizialeko etxeak egiteko hitzarmena sinatu zuten baina ez dakigu zer den hitzartu zutena: protekzio ofizialeko etxeak eraikitzea bakarrik, ala gainontzeko guztiak ere eraikitzea". Momentuz, berriz elkartzekotan eta alegazioak aurkezkotan geratu dira auzotarrak, bai eta herritarrei informazioa ematekotasun ere.

● Babes ofizialeko etxeak eraikitzeo aurrerapausoa


Urruzunon etxebizitzak eraikitzeo planerako arau subsidiaroen aldaketa puntuala onartu zen apirilaren 25eko plenoan. Urruzunon babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeo proiektua dago eta momentu honetan Eusko Jaurilaritza ari da beharrezko tramite eta azterketak egiten. HBk proiektuaren aurka bozkatu zuen, "inguru horretarako planteamendu erabat desberdina planteiatzen dugu. Izan ere, gure azterketen arabera, egokiagoa iruditzen zaigu inguru horretan aisialdi edo gune berderen bat eraikitzea". HBren emendakina atzera bota zen eta proiektua onartu.

● Depuradorari buruzko eztabaida

Dagoeneko onartu da depuradora Elgoibarren jarriko dela, nahiz eta oraindik Aldundia kokapena azertzen ari den. Gai honi buruz hitzegin zen azken plenoan eta bertan HBko Jabi Agirrek esan zuenez, "baidirudi Karkizano dela kokapenerako azertzen ari diren puntu bat. Halere, Udala gune industrializentzeko tramitazioekin ari da. Aproposagoa litzateke gaia baztertu eta gune industrial hori Sigman bultzatzea". Gillermo Garatek azaldu zuenez, "nire ustez autopista ingurua, Arriagako harrobia, Morterika eta San Pedroko fabrika zaharraren eta Leruleko industrialdearen artean dagoen lur eremua dira egokienak". Depuradorak Deba ibaia- ren sanamendua du helburu.

Udalaren jardunean euskararen erabilera suspertzeo trebatzailearen figura sortu da

Udaletxeko langileen artean euskararen ezagutza eta erabilera dagoen hutsunea bete asmoz lanean dihardu Euskara Baztordeak. Lehenengo pausoa ezagutza lan- tzea izan zen, horretarako hizkuntza eskakizunen plan- gintza bideratuz. Orain, lan- gileek ikasitakoa praktikan jarri behar dute eta horretar- ako behar duten laguntza eskainiko die trebatzaileak, Nerea Lodosok hain zuzen.



Batzordeko lehendakariak eman zuen prentsaurrekoa.

Udaletxeko langileak eguneroko lana euskaraz egiteko gai izateaz gain ohitura ere hartzea da helburua, eta horretarako behar bezala prestatzeo laguntza eskainiko die Nerea Lodosok, Euskaltegiko irakasleak. Uztailera arte egunero hiru orduz eus- kara teknikariarekin elkarlanean ari- tuko da Nerea, hasiera batean bere burua trebatuz. Irailetik aurrera ekin- go dio langileak trebatzeari.


Lana euskaraz egiten erakutsi

Trebatzaileak Udaletxeko langile- ek euskaraz sortutako lana zuzendu, akatsak bildu eta berriz errepika ez daitezen hainbat ariketa prestatuko dizkie, gazteleraz sortutako lana eus- karaz egiten erakutsiz.

Momentuz Idazkaritza, Kultura, Li- burutegia eta Kirol sailarekin hasiko dira, hizkuntza eskakizuna gaintu du- tenekin konkretuki. Izan ere, hasteko erakunde, elkarte eta herritarrekin ha- rreman asko duten sailei eman zaie le- hentasuna, 3. hizkuntza eskakizuna gaintua dutenei eta eguneroko lanean

euskararen presentzia gehitu dutenenei. Langileak binakako taldeetan banatu eta astero bi orduko pare bat saio ja- soko dituzte.

Datozen lau urteetan Ongizatea, Udaltzaingoa, Artekaritza eta Hirigin- tzarekin jarraituko dute plangintza hau.



Nerea Lodosok egingo ditu trebatzaile lanak.



1996ko maiatzaren 28an, 73 urte zituela hil zen **BENITO IRURETAGOiena ELUSTONDO**ren omenez **URTEURRENEKO MEZA** ospatuko da Madalako elizan, maiatzaren 10ean, larunbata, arratsaldeko 7'30etan. Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



97 urte bete zituen maia-tzaren 3an. Hil honen Sean Kutxak omenaldia egin zion Alejandro Gonzalezi, adin batetik aurrera bezero finenekin egiten dute. Umore handiko gizona dugu Alejandro, Valladolideko herri txiki batean jaioa eta 14 urte besterik ez zituela trena hartu eta Donostiara joan zena. Irun, Eibar eta Durangon bizi eta gero iritsi zen Elgoibarrera. Barre ugari egin ditugu berarekin hamaika kontakizun xeblebre esaten zizkigun bitartean.

ALEJANDRO GONZALEZ

“97 urte egin berri eta 98 noiz egingo zain nago”

– 97 urte Alejandro!

- 98 segituan. Nik urteak bete eta hurrengo egunean bat gehiago daukadala esaten dut. Adin batetik aurrera urteak irabaztea gauza ona da.

– Bizargina izan zinen gaztetan.

- Bai. Valladoliden jaio nintzen baina 14 urterekin bisera jantzi, barruko arropa hartu eta trenez Donostiara joan nintzen. Egunkarian iragarki bat jarri eta Irunen hasi nintzen lanean, bizargin.

– Esku ona zenuen, gainera.

- Bai, pultso ona izan behar da bizarra mozteko. Bezeroak keinuren bat egiten badu, mina egiten ari zarela adierazi nahi du. Nirekin gustura egoten ziren. Gero Eibarko Star armagintza fabrikari eta San Pedroko fundizioan ere egin

nuen lan.

– Txapela daramazu beti. Anekdotarik ere ba omen duzu.

- Bai. “Bilbaina” bat erosteko asmoz denda batera hurreratu nintzen. Txapela probatu eta zenbat balio zuen galdetu eta zenbat esan zidan ondo ulertu ez! 32 suse edo txikita eskatu zikidan eta nik boltsikoan 5 pta. bakarrik nituen. Neukana eman eta, dendariak ezer esan aurretik antxitxika alde egin nuen txapela buruan jantzita!

– “Lecheril” ezizena ere jarri zizuten.

- Lagun batekin ohitura nuen dominoan, musean eta karta jokuan egunero aritzeko. Galtzen zuenak ordaintzen zuen kafea eta nik irabazten nuen gehienetan. Zorte handia nuela eta, “lecheril” hasi zitzaidan dei-

tzen eta, gaur arte.

– Pilotazalea ere bazara.

- Askok gustatu izan zait betidanik. Gogoan daukat nola Gallastegi gaztea zela pilotan jolastea asko gustatzen zitzaion. Fermin Ruiz De Gauna eta biokin entrenatzen zuen.

– Elgoibarko eta Gipuzkoako Jubilatuen lehen etxea sortu zenuen.

- Bai, beste batzurekin batera. Correos zaharra zegoen tokian lokala eskaini zigun Ajubita alkatea zenak. 300 bazkide izatera iritsi ginen. Gero, Biltoki berrian hamar urtez izan nintzen zuzendaritzan baina orain dagoen bezala ez zait gustatzen: kina, dantzaldiak... Jubilatuen Etxeak lasaigoa izan behar du, karta jokoan arratsalde lasai-lasai pasa...


– Horrenbeste urte horrelako umorearekin betzeko sekretua zein da?

- Egia esatea nahi al duzu? Ni oso golfoa izan naiz, juergazalea. Eibarren bizi izan nintzenean, kalera lagunekin atera, edan, erre... Ondo bizi izan nintzen, gustura juerga egin eta egin.

– Orain ez duzu erreko!

- Semeak ez dit lagatzen! Egunean hiru zigarrotxo eta horietako bakoitza jakirik gozagarriena da nerretzat! Ardoa edateari laga diot, ez zait gustatzen, ez diot zapore onik hartzen eta.

Egunero, goiz partean, egunkaria gainbegiratu eta denborapasak egitea gustatzen zaio. Telebista ikusten utzi dugu, bazkaldu aurretik lokuluska bat egiten zuen bitartean. Zorionak eta urte askotarako, Alejandro!



azkue

●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Eneko Orive Santos (Apirilak 1)
- Leire Balada Alvarez (Apirilak 12)
- Koldo Errasti Irureta (Apirilak 13)
- Iker Yudego Gabiola (Apirilak 17)
- Issbel Díaz Mendieta (Apirilak 18)
- Iñaki Ansola Osa (Apirilak 21)
- Iraide Rovira Belaustegi (Apirilak 24)
- Nora Kortaberria Bilbao (Apirilak 28)
- Eider Rodriguez Sota (Apirilak 30)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Iñaki Otaegi Zabala, 64 urte (Apirilak 7)
- Ramon Lizarza Lizarribar (Apirilak 8)
- Valentin Aranzamendi Txurruka, 76 urte (Apirilak 12)
- Jone Careaga Gojenola, 63 urte (Apirilak 13)

Maria Larrañaga Badiola

(1897-1982)



● 1897ko abuztuaren 15ean jaio zen Azkoitiko Madarixa auzoko Luarixa baserrian. Bere gurasoak ere Madarixa auzokoak zituen. Bederatzi anai-arrebatatik hirugarrena zen bera.

● Oso gazte, 11 urterekin etorri zen Elgoibarko Uribenera neskame. Hemen denboraldi bat eginik eta oso gaixoturik, burdian eraman zuten Luarixa baserrira. Baserrian osatu ondoren ere neskame joatea tokatu zitzaion.

● 19 urte zituela ezkondu zen Jose Etxeberriarekin Parapan baserrira. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Seme zaharrena 18 urterekin hil zitzaion gerratean. Alaba bat ere oso gazte, bi urte zituela hil zitzaion.

● Bere bizitzan denetik egitea tokatu zitzaion. Sukaldari bezala trebea zen, baina bere adinik eta ordurik onenak baserriko lanetan eman behar izan zituen sendia aurrera aterako bazuen. Hala ere, jostea, puntua eta gantxiloa ziren bere benetako zaletasunak. 80 urterekin ere aldizkarietan ikusitako pntuak asmatzen aritzen zen.

● Benetan elizkoia bazen ere, eliza izan zen gehien sufriarazi ziona. Semea frentean hil ondoren, ez zioten hiletarik egin nahi izan Elgoibarren, "Culto y Credo" rekin izandako arazoak bide zirela.

● Malkoa hurbil bazuen ere, berez umoretsua zen.

● Elizatik etxera zetorrela ondoezak eman ondoren 84 urterekin 1982ko otsailaren 3an hil zen Elgoibarren.

AMISTAD TABER ?
NA TRASPASATZEN

Etxebizitza barne Tel: 74 10 01
Prezio interesgarria (Isa)

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

POL-POL

T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR



CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.

Bi dri era artisi koak
Obra komertzialak

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

MILA TXURRUKA:

“Lehen 200 litro esne saltzen zian kalia eta oin 40 inguru

40 urte ditu eta Sagarraga baserrian bizi da ezkondu zenetik. Lau seme-alaba ditu eta egunero, goizero goizero, merkatu plazara jaisten da. Esnea botiletan sartu eta saltzera, ortuko beste zenbait produktuekin batera. Baserria gus-tatzen zaio baina kalean ere ohituko zela aitortu di-gu Mila Txurrukak.

– Kalea ere gustuko, be-raz.

- Gustukua edo... Kalia ez naiz sekula bizi izan, be-ti baserrian. Baina ezkon-du aurretik, tailarrian ein naban lan eta denboria libre nakanian kalia asko ibil-tzen nitzan, batera eta beste-ra jun, lagunekin ibili... Gustatzen jatan eta seguru nao oin ere segiduan ohi-txuko nitzala.

– Baina...

- Nere gizona ez zan se-kula ohitxuko. Oin ere, bat-zuetan kalera buelta bat

ematera bajatzeko esaten dioteneian, “kalera, zerta-ra?” esaten dia. Harentzat baserrixa da bizitza.

– Eta semeren bat ere bide beretik omen dator.

- Bai. Zaharrenak 18 ur-te ditxu eta hari ere kalia ez jako gehixegi gustatzen. Baserrian ohitxu dia. Aitxari ganauakin eta asko laguntzen diue. Beste se-miak ere, 16 urte dakaz eta harek injeniero agronomo edo ikastia nahi dabala esa-ten dau, kanpuakin lotutako zeozer behintzat. Tailar zu-lorik ez dau inork nahi.

– Eta alaba?

- Urte t’erdi dakaz ha-rek. Etxeko poza da.

– Baserritik bizi zarete. Ez da oso normala.

- Gaur egunian ez. San Migelen bakarrak gerala pentsatzen dot. Esne behi-xak ditxugu, 30 buru gitxi gora-behera. Esnia Iparlat-eri saltzen diogu. Beste pis-kat kalia, merkatu plazan.

– Esne banatzaile baino, esne saltzaile zara, beraz.

- Bai. Ondiok batzuk ibiltzen dia etxez etxe baina horrek asko lotzen zaitxu. Domeka eta jaiegunetan ere bajau bihar zera goizian goiz. Neri merkatu plazara etortzen jataz bezeruak egu-nero.

– Eta asko saltzen al da?

- Oso gitxi. Asko bajau da. Lehen egunien igual 200 litro esne saltzen nitxun.

Oin ixa ez da 40 litroa aile-gauko. Batez ere jende nau-sixak erosten dau baserriko esnia eta medikuangana ju-ten dianian, esne hau izaten da kentzeko esaten diuen le-lengo gauzia. Gaztiak, en kanbio, kajako esnia nahixo.

– Behiak makinaz josten al dituzue?

- Bai. Gaur egunian Iparlatekuak kondizio oso onak exigitzen dabe esnia erosteko eta derrigorra da dana betetzia, bestela saldu gabe geratzen zera eta. Ma-kinia segurua da. Esnia jetsi eta zuzenian juten da kube-ta haundi batzuetara eta han gau guztia egoten da, hoz-ten. Kondizio minimuak be-te bihar izaten dia.

– Baserrian aritzen al za-rra zu?

- Oso gitxi. Nik goizian esnia bajau eta merkatu pla-zako postuan saltzen dot, berdurekin eta batera. Gero, 1,30etan baserrira igo, baz-karixa preparau eta semian bila juten naiz Institutura. Berriz ixo, harentzat bazka-rixa preparau, etxia jaso, garbitxu... Beti dao zeozer eitxeko baserrian.

– Eta oporrik?

- Hemen holakorik ez dao. Oin semiak hazitxa daude eta egun pasa juterik badakau baserrixa eta ga-naua haien arduran lagata, baina gaua etxetik kanpo... holakorik ez dou aspaldixan ein. Ezin laike.



Purina zabaltzea

Jose Angel Salegi duela 11 hilabete hasi zen zisterna-kamioi batekin baserri-joan eta batzuetan soberan zuten purina hartu eta falta zitzaien beste batzuetan zabaltzen. Jose Angelek esan digunez, "etxe askotan arazua zeon purina sobran zeolako, eta baserritarrak behartuta egoten zian purina hori erre-kara edo botatzera. Eta, bien bitartian, handik kilometro batzutarata beste baserri-joan batzuk zeuden purinarik ez zutenak". Toki batzuetan etxe inguruan 10 hektarea dituzte eta 100 buru eta beste batzuetan, berriz, 40 hektarea eta hango gizona kalean lanean hasi delako edo, lau behi baino ez dituzte izaten. Jose Angelek, "sobran daukaten tokietatik hartu eta falta dan baserrietara" eraman du. Ganadua ikuiluan egoten da eta bertako depositoan biltzen den txiza edo purina jasotzen du Jose Angelek aspiragailu batez. Bere esanetan, "Gipuzkoan, Asteazuko zona izan ezik ostantzian purina falta dala esan laike. Ganau gitxi dao".

Baserritarrek ongarri bezala erabiltzen dute purina. "Batzuek inbernaderoetarako erabiltzen dute, nere ustez ez da aproposa baina... Belardietarako oso ona da eta mendia belardi bihurtzeko baita ere. Lurra indartzeko oso ona da". Gaur egun purinaren ezaugarriak dituzten bestelako ongarriak ere badaude baina bat ere ez da purina bezain ona.

Zisterna txikia eta mangera

Behira dedikatzen den baserri-tarrak neguan eta garai honetan zabaltzen du purina. Ardiak dituenak udaberri aldera botatzen du. Baserri-joan bakoitzak duen esplotazioaren arabera botatzen du garai batean edo bestean. Hori bai, puri-

na desberdina da ganadua era batekoa edo bestekoa izan, gauza bat edo bestea jan. "Gizentzen dauan txahalek pentsua eta lastoa bakarrik jaten dabe eta horien purina oso fuertea da, fuertegia, erre egiten du belarra eta. Esne behi pinten, belar berde pila jaten dutenen purina, berriz, indarrak gitxien duena izango da".

Garai batean baserri-tarrak etxean bertan zituzten zisterna txikietan purina bildu eta mangera-zabaltzen zuten. Jose Angel Salegik urtebete eskas darama kamioiarekin bere zerbitzua eskaintzen eta gaur egun Euskal Herri mailan dagoen bakarra da. Lanean daraman denboran 300 baserri ingurutatik deitu izan diote bere zerbitzua eskatuz.



Purina edo ganaduaren txiza zabaltzea onuragarria da lurra indartzeko.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 67 68 64



magu's

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

San Roke 6 behe tel. 74 34 91

OTSO-HAUNDI baserria

San Pedro auzoan kokatzen da Otso-Haundi baserria, jatorriz Osoro Haundi dena. Bertan zazpi pertsona bizi dira gaur egun, baserrian behiak dituzte eta kalean ere lan egiten dute. Beatriz Peña etorri da gure artera, jaiotzez Aizarnazabalgoa baina ezkondu zenetik Elgoibarren bizi dena. Berak kontatu dizkigu euren bizimoduari buruzko hainbat gauza.

Ekonomia mistoa dute Otso-Haundi baserrian, “gaur egun nere senarrak tailarrian eitzen dau lan. Lehen, gurasuak baserrixik bizi izan zian, betidanik. Baina gaur egunian lan gehixo ein bihar da eta beste iturri batetik dirua lortu bizimodu ondo atera nahi bada”.

Gustura bizi dira baserrian, “bentajak eta desbentajak ditxu baina ni ez naiz kejaritzen. Igual kalera bajauko nitzan bizitzera baina ez dot sekula pentsatu”. Beatriz ezkondu aurretik administrari lanetan aritu zen baina gaur egun etxeoandrea da, “ezkondu nitzanian, umia eukitzia nahi genduan eta nahixo izan naban lana laga eta etxera dedikatzia. Ez naiz damutzen”. Bizitza aldatu egin zitzaiola argi dago, “herrixa aldatu naban, lagunak, familixia... Baina oso pozik nao”. Auzoan lagun taldea osatu du, “giro politxa dao San Pedron. Gu egunero, emakume talde bat pasiaran juten gera Klabelinak deitzen dan zona batera, Arrateko bidian. Lehen pistinara juten ginan baina azken boladan nahixo dou mendibueltia. Ondo etortzen da aldatzia”.

Kalea oporretarako

Pega bat badu San Pedron bizitzekak, “oin kaminua oso gaizki dao. Esaten dabe konpontzekotan diala baina, bitxartian... Ni ixa egunero bajatzen naiz kalera kotxiakin eta sekula ez dot peparik izan baina asko erraztuko litzake bidia bihar bezela egongo balitz”. Beatriz, Roberto eta hauen alaba Ainhoa eta Olatz urtero oporretan joaten dira egun batzuk, “gure baserrian gizonan gurasuak geratzen dia eta horrek askatasun gehixo ematen dizu, ze bestela baserrixak asko lotzen dau, batez ere ganaua badakazu. Gu ahalegintzen gera urtero egun batzuk urtzen. Apartamentu batera juten gera eta senarrak esaten dau oporretarako ondo dauala baina bizitzeko berak



SAGARDOA

Sagarrondo dexente dituzte Otso-Haundi baserrian, “sagarrak saldu eitzen ditzugu”. Beatrizek kontatu digunez, “Aizarnazabalen, nere herrixan, tolaría dakagu eta bi urtian behin sagardua eitzen dou. 3o0 litro inguru edo”. Sagardo ona ateratzen omen zaie, “guk gustura edaten dou eta lagunak etorri eta erateko etaratzen diegunian ere ona daola esaten dabe”. Akaso egunen batean baserrian bertan sagardotegi bat irekiko dute, “tokixa behintzat ez da falta! Baina, lan haundixa izango zan”.

nahixo dabala baserrixa. Gero, gizonan gurasuak ere urtetzen dia baina beti egun pasa, lotara beti baserriera bueltatzen dia, ez jakue gustatzen beserrik. Holaxe ohitxu dia eta”.

Soziedadea


Orain urte batzuk bederatzi auzotar elkartu eta soziedadea eraiki zuten Otso-Haundiko terrenoan. “Askotan eitzen ditzugu afarixak eta ospakizunak bertan. Bat edo batek urtiak betetzen ditzunian soziedadian elkartzen gera. Alaben urtietan ere berdin, auzokuak eta kaleko lagunak ixotzen dia, ama eta guzti, eta oso ondo ibiltzen gera. Han libertade haundixa dake, loka-la haundixa dalako eta bestela kanpua libre ibiltzeko aukeria dakelako”. San Pedroko gazte taldeak, gainera, ekintza ugari antolatzen ditu auzoko haurrentzat, “urtian behin, esaterako, irteera bat eitzen dabe nahi daben ume guztiakin kanpora. Eta hori oso inportantia da giro benetan ona sortzen dalako danen artian”.

Baserrian lan asko egin behar dela ez da gauza berria baina badirudi para-

je lasai horietan estresa zer denik ez dutela ezagutu behar, “baina baserri-xan ere izaten dia arazuak eta gauza bat dala bestia ez dala, beti daoz preokupaziuak. Horrek ez dia baserrixik kalera kanbixatzen”.

OTSO-HAUNDI

- **Auzoa:** San Pedro
- **Bizilagunak:** Felix Balzola, 69 urte; Dominga Zubiondo, 66 urte, Arrate Balzola, 29 urte, Roberto Balzola, 36 urte; Beatriz Peña, 31 urte; Ainhoa Balzola, 7 urte eta Olatz Balzola, 5 urte.
- **Lur hedadura:** 13 hektarea
- **Esplotazioa:** Zazpi behi eta zazpi txahal okelatarako. Ortuan ateratakoea etxean kontsumitzen dute eta sagardoa ere egiten dute etxerako.



■ **1** San Pedro auzoan dago abiapuntua.

■ **2** Bertako parking-ean kotxea utzi eta porlanezko bidea hartuko dugu, Aubixaraino iritsi arte.

■ **3** Aubixa baino piskat lehenago, porlanezko bidea laga eta eskumara dagoen bidea hartuko dugu, basoan barrena sartuz. 10 minutura bidegurutze zabal bat ikusiko dugu, Santumotz izenez ezagutzen dena. Bertan eskumako bidea hartu eta Hiruiturrira ailegatu gara.

■ **4** Hiruiturri atsedeneku aproposa da zerbait jan eta edateko. Hiruiturritik Kalamuara igotzeko bi aukera daude:

■ **5** Hiruiturriko sarreran mendian gora abiatzen den bidea hartuz, Olaburu tontoretik pasatu eta Kalamuara iritsiko gara. (25 minutu)

2. kasuan ere Hiruiturriko sarrerako bidea hartu behar da baina oraingoan zuzenean igo beharrean mendia inguratuz joan daiteke, Kalamuaren maldan zehar doan bidetik. (35 minutu).

Gailurrean zenbait buzoi daude eta horietako batean "G.A.ERT - Ceplastica 6/7/80" jartzen du, Everestera igo zen lehen euskal espedizioaren omenez.

Kalamuak 772 m.ko altuera du eta bertatik panoramika ederra dago: Akarregi mendia, Etxeberria, Markina eta Lea Artibaiko ingurua, Oiz mendia eta itsasoa ere ikus daitezkeelarik, baita Arrate, Karakate, Elgoibar eta Urnabitza zein Izarraitzeko mendiak ere.

■ **6** Gailurretik behera zelai zabaletik jaitsiko gara. Hortik aurrera aukera desber-

dinak daude: Garagoitxi eta Akondiako tontorak igo eta bera-ttik Arrateraino jarraitu.

■ **7** Aipatutako mendien ezkerretik Arratera zuzenean joan gaitezke 15-20 minututan Eibartik Arratera doan bidera iritsiz. Arratera 2 km. inguruko bidea geratzen da.

■ **8** Arratetik buelta bide beretik egin beharrean, Kalamuatik hartutako bidea beharrean, eskumakoa hartu eta zuzenean San Pedrora iritsiko gara.

■ **9** Kalamuatik Arratera joan nahi ez badugu, Kalamua eta Garagoitxi arteko lepoan gaudela, ezkerretara, mendian behera abiatzen den bidea hartu eta harrietako marka zuri-gorria jarraituz Armario base-rriira iritsiko gara eta hemendik San Pedrora zuzenean.

Kontuan izatekoak

A. San Pedroko basiliza. Kokatzen den auzoaren izena hartzen du. Bertatik Arrateko eliza ikusten da, bai eta hainbat mendi, Elgoibar eta Olaso hilerriko ataria ere.

Baselizaren atzean bi pilotaleku txiki daude eta ondoan gaur egun jatetxe bihurtutako baserria. Landa ederra mahai eta eserlekuekin, haurrentzako parkea, jolastokia, platerari tiro egiteko lekua eta aparkaleku ederra ere ditu.

B. Hiruiturri

Kalamua mendiaren oinean dago kokatua eta aisialdirako toki egokia da. Mahai eta jarlekuez gain, tokiari izena ematen dioten hiru iturri daude, urte osoan zehar ur fresku edangarria ematen dutenak. Iturri hau Morkaikok 1954. urtean berriztu zuen.

Iturria: Deba Deheko gida turistikoa.



Argazki hau **Iñaki Gabilondok** laga digu. Lerunen, 1952. urtean, Elgoibarko "Fleje" futbol taldekoak (San Pedroko farbikak babesten zuen taldea) ageri zaigu.

Tente, ezkerretik hasita:
Pedro Gabilondo entrenatzailea,

Eduardo Irusta, J. Antonio Alzibar, Gerardo Garate (†), J. Luis Ansola, Juanito Irureta, Ibarluzea (†), López eta Fidel Barrera San Pedroko nagusia.

Makurtuta, **Jesus Mugerza eta Lucas (†)**, laguntzaileak, **Luis Santolaya, Ladis Irureta, Luis M. Ruiz de Gauna, Luis M. Eguren (†) eta Jesus Riaño.**



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07



“Triathloi motzek gehixo motibatzen naute”



Iñaki Andonegi

- **Adina: 27**
- **Lasterketetan errepikatzen duzun erroparik? Bai.** Iron-man batian erabili naban kamisetia Elgoibarko duathloian jantzi naban.
- **Estresaren aurka? Igerixan ein.**
- **Gustuko musika? Edozein, momentu bakoitzerako musika bat dao.**

– **Joan den larunbateko Duathloian postu ona egin zenuen.** - Bai, nahiko ona. 16. a heldu nitzan.

– **Hala ere, deskalifikatu egin zintuzten. Zergatik?** - Duathloietan eta triathloietan bizikletaz zoazenean, distantzia bat mantendu bihar dozu aurrekuakin eta albokuakin. Lasterketan 12 bat edo juntau ginan eta momentu batzuetan ez gendun arau hori bete. Erreklamau naban baina konziente naiz ez gendula arategia bete. Normalian duathloi batian 2 deskalifikazio egoten diaz eta Elgoibarkuan 18 deskalifikatu zitxuen.

– **Entrenamenduak aldatu dituzu azken aldian.** - 94an triathloi luziak eitzen nitxun baina aliziente falta zala eta berriz hasi naiz triathloi motzekin. Triathloi luziak ein eta gero konturatu nitzan asko hobetu nabala eta entrenamenduak motzetarako egokitzea erabaki naban. Oin nere burua oso ondo ikusten det. Astian 14 bat ordu etixen ditzut saltaka, igerixan eta bizikletan. Piszinarra 4-5 egun juten naiz eta intentsidade altuan ibili zaitezke. Saltaka eta bizikletan, egun batian distantzia motza baina oso indartsu. Beste sesio bat luzetxuaua intentsidade haundixian ere bai, eta, azkena, distantzia luzea baina intentsidade txixixian.

– **Errendimendu handiagoa lortzen al da horrela?** - Bai. Entrenatzia

lan bat bezela da neretzat. Etekin bat ateratzeko asmuakin juten zera.

– **Ez al da oso sakrifkatua horrela entrenatzea?** - Ez, nik hola izatia aukerau dotelako. Zelan hobetzen doten ikustiakin disfrutau eitzen dot. Konpetizioetarako entrenatzen dot, ez osasunez ondo egoteko bakarrik. Hiru hilabetetan eitzen dot entrenamendu hau eta neguan disfrute modura planteatzen dot.

– **Zein triathloitan parte hartzeko asmoa?** - Hiruzpalautan. Elgoibarkuan adibidez, parte hartu naban konpetizuekin kontaktua hartzeko, entrenamendu modura planteau naban. Lelengo triathloia igual hilan 18an eingo det, Burdeos ondoko herri batian. Eta bestela, Saloun, ekainaren 7xan. Aurtun lau bat eingo ditzut, ondo prestatuak. Lasterketa asko ein biharrian gutxi eingo ditzut; beste ilusio batekin juten zera.

– **Zer da iron-man bat?** - 3.800 metro igerixan, 180 bizikletan eta 42 km. lasterka; 11 bat ordu danera. Bi dauzkat einda, Holandako iron-man-a. Urte batian jun nitzan eta oso gustura geratu ez nitzanez hurrenguan errepikau naban. Nizakua ere einda dakat baina ez da iron-man-a, zeozer motzaua da.

– **Berriz egiteko asmorik?** - Neretzako kirola bizitza guztian eitzen dan zeozer danez, eingo det. Hori bai, oso ondo prestatu.

ESKOLARTEKO JOKOAK

EMAITZAK (Apirilak 26, 21. jardunaldia)

SASKIBALOIA

- **Benjamin mutilak** ■
Mendaro A2 0 - Ikas Zirt 8
Ikas Txut 12 - Pilar Lakasitos 2
Ikas Kirol 12 - Pilar Flash 2
Ikas Marrazo 0 - Mendaro A1
- **Benjamin neskak** ■
Pilar Usoak 0 - Urasandi 14
Ikas Zart 9 - Mendaro B 11
Ikas Izurde 2 - Ikas Izar 3

ESKUBALOIA

- **Alebin mutilak** ■
Ikas Eguzki 9 - Pilar All Star 8
Pilar S. Germain 6 - Herri Manchester 14
- **Alebin neskak** ■
Ikas Laino 1 - Pilar Mix 4
Ikas Trumoi 2 - Ikas Txingor 2

AGENDA (Azaroak 23, larunbata)

ESKUBALOIA

- **Alebin mutilak (Ikastolan)** ■
10:30 Ikas Ilargi - Herri Manchester
12:00 Pilar All Star - Mendaro D
- **Alebin neskak (Ikastolan)** ■
9:45 Ikas Txingor - Pilar Star Girls
11:15 Ikas Trumoi - Mendaro C

SASKIBALOIA


- **Ben. mut. (Herri Eskolan)** ■
9:30 Ikas Marrazo - Pilar Lakasitoas
10:30 Ikas Kirol - Ikas Zirt
11:30 Mendaro A1 - Pilar Flash
12:00 Mendaro A2 - Ikas Txut
- **Ben. nesk. (Herri Eskolan)** ■
10:00 Ikas Zart - Pilar Kas
11:00 Ikas Izurde - Urasandi
12:30 Ikas Izar - Mendaro B
- **Inf. mut. (Donostian)** ■
10:30 Pilar Boys - La Salle Zarautz

Egoitz Mora, Euskadiko judo txapelduna

Egoitz Mora, Ibai Klubekoa, Gasteizen apirilaren 27an izan zen Euskadiko judo txapelketan podiumaren gorenera iritsi zen, 17 urtez azpiko eta 78 kilo artekoen kategorian. Iaz brontzezko domina irabazi zuen txapelketa honetan, aurten, berriz, urrezkoa. Egoitzekin batera Xabi González, Esther Idiakez, Josu Idiakez eta Zuhaitz Azpiazu joan ziren baina zorte kaxkarrak izan zuten, Xabi eta Josu erretiratu egin baitziren, batak be-launean eta besteak ukalondoan mina hartuta. Domina honi esker Egoitzek Melillako Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera izango du.

19 domina Legazpin

Ibaiko judoek Legazpiko benjaminen txapelketan 19 domina lortu zituzten. Urrezkoa lortu zutenak hauek dira: Egoitz Mora, Gorka Garate, Aitor Mugerza, Jon Ander Pascual, Maria Idiakez eta Zuriñe Polo. Zilarrezkoa: Erlantz Martínez, Alberto Fernández, Josu Tellabide, Zuhaitz Martínez, Aitor González, Maialen Mora, Miren Mugerza eta Esther Idiakez. Azkenik, brontzezkoa Borja Ortiz eta Eki Una-



Egoitz Morak Euskadiko txapela lortu zuten Gasteizen.

nuek eskuratu zuten.

Bestalde, Ibaikoak Nazioarteko Andorrako txapelketan ere izan ziren eta oraingoan 8 domina irabazi zituzten. Urrezkoa Egoitz Morak, Gorka Garatek, Erlantz Martinezek, Aitor Mugerzak eta Maria Idiakezek. Zilarrezkoa Esther Idiakezek eta brontzezkoa Josu Idiakez eta Zuriñe Polok.

1967an 3. mailara igo zirenen omenaldia

Joan den apirilaren azken zapatuan 1966-197ko denboraldian 3. mailara igotzea lortu zuen futbol taldeari eta klubeko zuzendaritzakoei omenaldia egin zitzaizen Mintxetan Haundiaren partidua- ren aurretik. Orduko jokalariek eta direktibakoak elkartzeko aitzakia ezin hobea izan zen, Goiko-Errota elkartearen bazkaria egin zutelarik eta arratsaldean aipatu omenaldia. Haritz Dantzari Taldekoek aureskua dantzatu zuten eta ondoren loreak eta oroigarriak banatu ziren. Jakin dugunez, Elgoibarko Haundiak 3. mailara igotzea lortu zuen partidu hartan, elgoibartar zaletu mordoa joan omen zen partidua ikustera. Beasainen jokatu omen zen norgehigoka, eta

itxuraz, 30 bat autobus antolatu ziren Elgoibartik. Hala ere, ez da hor gelditzen gauza. Probintzia osoan ez zegoenez alokatzeko moduan autobus gehiago, askok eta askok auto partikularretan joan behar izan zuten Haundiaren partidu garrantzitsu hura ikustera. Orduko zaletuak, kopuruz behintzat gaur egunekoekin alderatuz, beste modukoak, ez ala?



1967an, 3. mailara igotzea lortu zutenen omenaldiko unea.

aitor

EMAITZAK

Futbola

Usurbil 0 - Elgoibar 3 (Neskek)
Arratia 0 - Haundi 1
Elgoibar 7 - Hondarribia 0 (1. jub.)
Elgoibar 0 - Euskaldunak 1 (1. erreg.)
Eibartarrak 0 - Elgoibar 10 (2. jub.)
Elgoibar 4 - Urola 3 (Kadeteak)
Soraluze 2 - Pedrusko 0 (2. erreg.)
S.T. Lizeoa 6 - Elgoibar 1 (Infantilak)

Saskibaloia

Kostkas 66 - Elgoibar 64

Eskubaloia

Tecnomeca Elg. 16 - Goierri 15 (Jub. mut)
Arte 25 - Elgoibar 21 (Kad. mut.)
Pagoaga Elg. 22 - Ereintza 18 (Jub. nes.)
Aloña Mendi 14 - Unceta Elg. 18 (Kad. nes.)

Areto futbola

Puert. Pasajes 2 - Elgoibar 2 (Auton.)
Aloña Mendi 2 - Elgoibar 5 (1. maila)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 10
15:00 Elgoibar - Azkuene (Oho. jub.)
17:15 Haundi - Audio
19:00 Pedrusko - Beti Sutan (2. erreg.)
Igandea, 11
10:00 S.D. Eibar - Aizkorri (Kad.)
17:00 Elgoibar - Anaitasuna (Kad.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 10
16:00 Tecnomeca Elg. - Bergara (Jub. mut.)
17:30 Pagoaga Elg. - Pulpo (Jub. nes.)
Igandea, 11
9:30 Pneumax Elg. - Urola (Kad. mut.)

Areto futbola, Kiroldegian

Ostirala, 9
22:10 Elgoibar - C. Extremeño (1. maila)
23:10 Elgoibar - Araba Etxea (Auton.)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 10
19:00 Elgoibar - Beti Gazte

Tenis Txapelketa, IMHn

Larunbata, 10
16:00 Martin Egea - Iñaki Retolaza
17:00 Sabas Boyero - Fernando Rico

Pala Txapelketa, Ikastolan

Larunbata, 10
16:00
Rodolfo Rico - Josean Etxeberria
Jose De Arriba - Jon Peli Uriguen
17:00
Fernando Rico - Martin Urigoitia
Patxi Aranegi - J. Vicente De La Mata

Bost elgoibartarrek hartu zuten parte Duathloian

Iñaki Bodegas donostiarrak erraz irabazi zuen lasterketa

Joan den zapatu arratsaldean, maiatzak 3, Urgazi Trathloi taldeak antolatutako Elgoibarko VI. Duathloia burutu zen. Lasterketa amaitzeko 5 kilometroren faltan, bigarren postuan zihoan Mario Salazar mexikarrak istripua izan eta Mendaroko ospitalera eraman behar izan zuten, nahiz eta istripua ez zen larria izan. Lasterketako azken 5 kilometroetan, okerreko bidea hartu eta auto batekin kolpea hartu zuen.

Bero izugarria eta eguzki galdatan egin behar izan zituzten 127 partehartzaileek Duathloia 42 kilometroak. Lehendabizi 4 km. saltaka, 33 bizikletaz eta azken 5 kilometroak berriz saltaka. Iñaki Bodegas donostiarra eta Salazar mexikarra hasieratik gainerako korrikalariengandik bereizi ziren. Donostiarrak bizikletako frogan hiruzpatalu minutuko aldea atera zion mexikarrari eta azkenean bera izan zen irabazlea. Lasterketa 97 partehartzailek amaitu zuten; 12 erretiratu egin ziren eta 18 deskalifikatu egin zituzten.



Lasterketaren lehen hiru postuak lortu zituztenak.

Elgoibartarrak

Aurten bost elgoibartar izan dira Duathloian parte hartu dutenak. Helmugan sartu zen lehen elgoibartarra Iñaki Andonegi izan zen baina deskalifikatu egin zuten, epaileen ustez, bizikletako frogan ez zuelako zintzo jokatu. Hortaz, lehen elgoibartarrari dagokion saria bigarren sailkatuari eman zitzaion, Iñaki Konderi, hain zuzen.

SAILKAPEN NAGUSIA

1- Iñaki Bodegas

ELGOIBARTARRAK


1- Iñaki Andonegi (deskalifikatua)

2- Iñaki Konde

3- Martin López de Larrinzar

4- Jesus M. Lersundi

5- Moises Andonegi



Parte hartu zuten elgoibartarrak. Argazkian bat falta da.

Ikastolako 6. mailako neskek, Gipuzkoako txapeldunordeak

San Bartolome Ikastolako 6. mailako neskek joan den hilaren 26an Anoetan izan zen Gipuzkoako atletismo txapelketan bigarren postua lortu zuten lehen sailkatuekin puntuka berdinduta. Hortaz, zortzi neskez osaturiko talde hau Gipuzkoako txapeldunordea da atletismoko ikastetxekako sailean. Esan bezala, Ikastolakoe lehen sailkatuen puntu berdinak lortu zituzten eta hirugarren sailkatuei 4 puntu eta erdiko aldera atera zieten.

Datorren larunbatean, hilaren 17an, Mintxetako zelaian Atletismoko finalerdiak eta finalak jokatu dira banakako modalitatean. Egingo diren frogak pisu jaurtiketa eta 60 m. izango dira.



Zutik, ezkerretik hasita, Judith Zabala, Amaia Otero, Ana Etxaniz, Dani Rino entrenatzailea eta Guruzne Urkidi. Makurtuta, Gorane Salaberria, Eire Vila, Ainara De Pedro eta Maialen Mora.

 ANCHUSTEGUI s.a ZERAMIKAK	Billegia: Arregitorre, 10 - 14 behea Tel. 74 20 38 - 74 23 71 20870 - ELGOIBAR Gipuzkoa
Erakusketa eta bulegoa: Antonio Arrillaga, 6-8 behea 83 Postakutxa Tel. 74 33 44 - 74 06 92 Fax 74 37 11	

TINDATEGIA	
Foruen Enparantza 4 Tel. 74 00 91 ç ELGOIBAR	

Elgoibarko Izarraren urteko Batzar Orokorra

Apirilaren 29an izan zuen Elgoibarko Izarrak Batzar Orokorra. 30 lagun inguru izan ziren elkarteko 96ko memoria ezagutu eta 97rako asmoak jakiteko. 96ko balantzea "oso positiboa" izan dela adierazi digute elkarte-

koek, "helbururetariko bat informazioa hobetzea delarik". Horretarako, besteak beste, Izarren Hautsa berripapera hobetu nahi dute. Ekitaldi amaieran bi dokumentu aurkeztu zituzten. Bata, elkartearen helburuak eta filosofia jasotzen duena, eta bestea, 91-96 urteen errebaso eta balorazioa. Bi txostenak elkartean eskura daitetzke 74 16 26ra deituta, eta 300 pta.ren truke.



Elgoibarko Izarraren proiektu guztien berri eman zuten batzarrean.

Kafe Usainean

Apirilaren 25eko "Kafe Usainean" saioan, Kultur Etxeko sotoa goraino bete zen. Silbia Hernandezen piano saioa, Duo Plaentxiren kantak, Tejero anaaien oboe eta flauta saioak, Mendaroko txiskolarien graziak eta Mari Karmen Elorza eta



Duo Plaentxi saioaren une batean.

J. Membrilleraren artelanak ikusten, ederki gozatu omen zuen jendeak. Elgoibarko Izarratik esan digutenez, hurrengo saioa hilaren 30ean izango da.

Heziketa Iraunkorreko Programa

1997.eko Maiatza, Ekaina eta Uztaila

AUTOMATIKA HASIERA ORDUAK

- Automatak 97.6.2 40
- Neumatika industrialia 97.6.2 40
- Hidraulika industrialia 97.6.23 40
- Mekanikarietzako elektrizitate industrialia .. 97.6.23 50

INFORMATIKA Hasiera Orduak

- Windows 95 97.6.2 21
- MS Word 97.6.11 30
- MS Access 97.6.25 30
- MS Excel 97.7.9 30
- Internet 97.6.30 15

KALITATEA Hasiera Orduak

- Normalizazioa eta egiaztapena.
UNE/EN/ISO 9000 arauetan sarrera 97.6.2 30

FABRIKAZIOA Hasiera Orduak

- Tornu CNCaren Programazioan Sarrera97.5.26 40
- Fresagailu CNCaren Programazioan Sarrera 97.5.26 40
- CNC Tornu Erabiltzaileentzako Programazioa 97.6.16 40
- CNC Fresagailu Erabiltzaileentzako Programazioa 97.6.16 40

DISEINUA Hasiera Orduak

- Planoen Interpretazioa 97.5.19 40
- AutoCAD v.13 97.6.9 40

Ikastaro guztiak Astelehenetik Ostiralera dira, 18:00etatik 21:00ak arte

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

- Erreminta Makina Institutua
San Roke auzoa, 1
20870 Elgoibar
- Tel: 943 744132
Fax: 943 744153
E.mail: fundac03@saren.es
- 8:30etik-13:00ra eta 14:30etik 17:30era



INTERESEKO
TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak 461111
Txanda hartzeko 743354
Planning-a 742950
Alkoholiko Anonimoak 740385
D.Y.A (anbulantzia) 464622
Gurutze Gorria 743864
Mendaroko Ospitalea 756264
Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
Udal Kirol Patronatua 744415
Kultura Zerbitzua 742158
Mendaroko Udala 756100
Ongizate zerbitzua 741008
Udaletxea 741050
Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
Kiroldegia 744415
Kontsumo Bulegoa 743088
Liburutegia 743525
Musika Eskola 742145
Mintxeta 744315
Parrokia 740842
Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
Herri Eskola 74 08 79
I.M.H. 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre 74 02 67
Ezenarro (Meka) 74 44 80
Ikastola 74 44 41
L.H.I. 74 44 80
Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
El Diario Vasco 74 40 73
El Correo EspaDol 74 10 82
Egin 10 84 21
Zazpiki irratia 74 34 74

9
ostirala

22:30 "HUMEDADES"
DANTZA SAIOA
Taldea: Damian Muñoz
Herriko Antzokian
Antolatzaileak: Haritz
Dantzari Taldea eta
Musika Fundazioa

10
larunbata

11:30 ZAZPIKIREN
BILERA
Ganbaran
17:00 GIPUZKOAKO
BOLO TXAPELKETA
San Migeleko bolatokian
19:30-22:15 ZINEA
"La sombra del diablo"

11
igandea

19:30-22:15 ZINEA
"La sombra del diablo"

12
astelehena

19:00 HILTZADIA
Gaia: Osteoporosia,
hipertentsioa eta
bihotzeko gaitzak
Hizlaria: Ana Gómez
sendagilea
Kultur Etxean
Antolatzaileak: Haizea
E.T. eta Udal Ongizate
Saila
22:15 ZINEA
"La sombra del diablo"

13
asteartea

19:00 HITZALDIA
INSTITUTUKO
GURASOENTZAT
Ezenarro Institutuan
Antolatzailea:
Herri Institutua


15
osteguna

9:00 ENPRESA
ETIKARI BURUZKO
JARDUNALDIAK
IMHn
Antolatzaileak: Gestio
Eskola eta IMH
19:00 HITZALDIA
Gaia: Aldatzea merezi
duten ohiturak
Hizlaria: Ana Gómez
sendagilea
Kultur Etxean
Antolatzaileak: Haizea
E.T. eta Udal Ongizate
Saila
22:15 ZINE KLUBA
"Rompiendo las olas"
Antolatzailea: Ongarri
Zine Kluba

16
ostirala

19:00 ARGAZKI
ERAKUSKETA
Izenburua: "Desde mi
ventana"
Antolatzailea: Ongarri
Argazki Taldea
Kultur etxean
Ekainaren 15era arte
22:15 ZINE KLUBA
"Rompiendo las olas"
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

ZI
NE
A



Zuzendaria: Alan Pakula
Antzezleak: Brad Pitt, Harrison
Ford, Natascha McElhone

La sombra del diablo

Brad Pitt IRAko kide bat da. Ir-
landatik EEBBetara alde egiten
du eta bertan polizia irlandar ba-
ten etxean hartuko du ostatu. Po-
liziak ez daki bere etxean bizi
den gaztea IRAko kide denik.
Bien artean sortzen den adiski-
detasuna bortizkeria bihurtuko
da poliziak gaztearen iraganaren
berri izaten duenean.

● Enpresako etikari buruzko jardunaldia

Gestio Eskolak eta Erreminta Makinaren Institutuak "Enpresetako etikari buruzko jardunaldia" antolatatu du hilaren 15erako, osteguna. Europar Kalitatearen Eredua abiapuntutzat hartuta, gaur eguneko erakundeek erantzun egoki bat ematea da helburua. Jardunaldietan parte hartuko duten hizlariak Angel Toña Guenaga ekonomian doktorea eta Arantza Etxaniz Barrondo enpresa zientzietan lizentziatuak dira. Eguerdiko 12:30etan esperientzia praktikoen aurkezpena izango da eta ondoren eztabaida. Saio honetan Alfonso Ausin TVAko zuzendaria, Jose Migel Fiallegas abokatu eta Pedro M. Ormaetxea Delteco-ko zuzendariak jardungo dute. Jardunaldiak goizeko 9etan hasi eta eguerdiko 14:00ak arte luzatuko dira.

● Zeramika ikastaroa

Lurki Zeramika tailerrak antolatu duen zeramika ikastaroa dagoeneko hasita dago, baina nahi duenak badu oraindik izena emateko aukera. Ikastaroa ekainaren 5era arte luzatuko da. Klaseak astelehenerik ostegunera bitartean dira arratsaldeko 6etatik 9ak arte. Lurkiren tailerra Aita Agirre plazako lokaletan dago kokatua.

● Gaur, hilak 9, "Humedades" dantza saioa

Haritz Dantzari Taldeak antolatuta, Udala Musika eta Dantza Fundazioaren laguntzaz, Damian Muñoz Dantza Taldearen "Humedades" emanaldia izango da, gaur, hilak 9. Saioa Herriko Antzokian izango da gaueko 22:30etatik aurrera. "Cuando me des un respiro", bilbotar hauen bigarren lanak, Madrilgo IX. koreografia txapelketan lehen saria irabazi zuen eta 1996ko otsailean "Danza Valencia 96"an parte hartu zuen konpainiak. Damian Muñoz dantzari eta koreografoak hainbat ikastaro eman ditu Estatuan bai eta New York-eko Movement Research delakoan ere.



● Institutuko gurasoentzako bilera

Datorren asteartean, hilak 13, arratsaldeko 7etan, Herri Institutuko Gurasoen Elkarteak antolatutako hitzaldia izango da Bernardo Ezenarroko aretoan. Hitzaldia Felix Placer pedagogoak emango du "Gazteak eta aisialdiaren erabilera"ri buruz. Antolatzaileek dei egiten diete guraso guztiei hitzaldira joateko.

● Emakumeentzako osasun saioak

Udal Ongizate Sailak eta Haizea Emakume Taldeak elkarlanean, emakumeek zuzenduriko osasun saioak antolatatu dituzte maiatza eta ekainerako. Sei hitzaldi eta antzerki emanaldi bat izango dira hainbat gairen inguruan: osteoporosia, hipertentsioa, bihotzeko gaitzen prebentzioa, tabakoa, alkohola, botikak, menopausia, ondo jatearen garrantzia eta kirolaren eta pisuaren garrantzia. Maiatzeko saioen egutegia honako hau da: hilak 12, 15 eta 19. Ekaineko saioak 9an, 12an, 19an eta 20an izango dira. Hitzaldiak ASTI elkartearen laguntzaz egingo dira. Azken saioan, ekainaren 20an, Virginia Imaz Oihulari Klown taldeko kideak antzeztuta, "Ezerotasun Klownikoak" izeneko saioa izango da Herriko Antzokian gaueko 22:30etan. Gainerako hitzaldi guztiak Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 7etan. Saioak emakumeek zuzenduak direnez, haurtzaindegi zerbitzua egongo da Atxutxiamaikaren eskutik.

TXAN - DAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauez
10	Yudego	Yudego
11	Yudego	Yudego
12	Ormazabal	Zabaleta
13	Etxeberria	Etxeberria
14	Etxeberria	Escala
15	Bidasolo	Bidasolo
16	Yudego	Yudego

Zabaleta: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

Escala: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38

OKINDEGIA

4 igandea Zabaleta

ONGARRI zine kluba



(Dinamarca 1996)

Zuzendaria: Lars Von Trier

ROMPIENDO LAS OLAS

Eskoziako ipar aldeko herri intolerante batean dago kokatua istorioa. Erljio protestantea nagusi den leku honetan bi pertsonen arteko maitasun harremana kontatzen da. Mutilak petroleoa ateratzen duen plataforma batean egiten du lan. Bertan istripu bat izango du eta ondorioz, bikotearen harremana zeharo aldatuko da, erabat bitxia bihurtuko delarik. Harreman honek herritarren haserrea sortaraziko du.

OHARRA: Aste honetan jaso ditugun aguren koprua oso handia denez, ezinezkoa izan zaigu argazkirik jartzea

Salerosketak

◆ SALDU ◆

◆ Ambra 186 ordenagailua. DX2 modelua, 66 MHz, disko gogorra 243 mega, RAM 8 mega, 14 puldatako amba monitorea kolore-etan, teklatura eta arratoia 50.000 pta.n saltzen dut. ☎ 12 71 93 (M. Eugenia)

◆ Mendaroko Irrintzi liburudenda traspasatzen dut. ☎ 75 61 53

◆ 1'40x2'00 m-ko sofa-oheta salgai. Estreinatua gabe. Prezio erdian. ☎ 19 25 91 (Javier)

◆ Kitarra elektrikoa, estutzea eta anplia saltzen ditut. ☎ 74 08 34 (Luis)

◆ Logela baterako altzariak salgai: ohea, mesanotxea, hiru ateko armairua, eskritorioa eta estanteriak. Berriak ☎ 74 12 85

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

◆ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta euskaraz jakitea beharrezkoa da. ☎ 74 40 84

◆ Sukaldaria behar da. ☎ 70 06 02 / 906 15 74 03 (Guillermo)

◆ ESKAERA ◆

◆ Klinikak eta psikiatria auxiliarrak gaixoak edo pertsona nagusiak zainduko litzuke. ☎ 74 05 45

◆ Klinikak laguntzaileak gaixoak edo pertsona nagusiak zainduko litzuke. ☎ 74 03 98

◆ Neska gazte batek haurrak zaindu edo propaganda banatuko luke. ☎ 74 04 56.

◆ Gaixoak zaindu, etxea zaindu, enpapelatu lanak, sukaldekoak etab. egiteko prest nago. Carmen Jorquera. ☎ 75 62 57

◆ Edozein lan mota egiteko prest nago. (Umeak, nagusiak zaindu). ☎ 75 26 75 Mari Karmen

◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. ☎ 74 06 09 Marisabel

◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependientzia bezala. ☎ 74 22 78

Etxebizitzak

◆ Etxea saltzen dut Santa Ana 10-4n. ☎ 75 62 34

◆ Pisu bat alokatuko nuke Elgoibarren uztail eta abuztuaren. ☎ 74 31 69 (Pepi)

◆ Maiatzetik irailera bitartean etxea alokatzen dut Jakan. ☎ 74 15 22

◆ Donostian (Paseo Rondan) pisu bat alokatzeko daukat. ☎ 74 18 34

◆ Ekainetik aurrera apartamentu bat alokatzen da Benidormen Levanteko hondartzako lehen ilaran. Garbigailua, TB, igerilekua, parking-a. ☎ 74 20 31

◆ Udan, uztailan izan ezik, Santa Polan (Alicante) bungalow-a alogeran ☎ 74 12 13 Carmen (Gauze)

Bestelakoak

◆ Eleoibarko folk taldeak en-**tsajatzeko lokal bat alokatuko luke.** ☎ 74 14 62 (Gauze deitu. Alvaro)

◆ **Husky siberiano eme bat ematen dut.** Zuri-belza, 8 hilabete ditu, bakarra, 997/1ak jarrita eta papeleoa egina. ☎ 967 91 57 17 (Asier)

◆ **Eskiak (33 zeharkia) eta bastoiak oparitzen ditut.** ☎ 74 34 24 (Mila)

◆ **WG autoko giltzak** topatu nituen Arnoaten eta Udaltzaingotza eraman nituen.

◆ **DRHko ikasleak pirata jantziak eta tresnak behar ditugu** antzezlan baterako. Estreinaldia aurreratu eta lehenbailehen behar ditugu. Institutura eraman zuen jantziak dituen pertsona-ekin batera. Gu arduratuko gara itzuliz. Eskerrik asko.

◆ Paper batean bilduta **dirua aurkitu dut** merkatu plazan. Galdu duenak deitu ☎ 74 33 05 (Gauze)

◆ **Egunero Bilbora** goizean epiz kotxez doan norbaitekin **joan eta gastuak konpartituko nituzke.** ☎ 74 08 78 Maite.

◆ Alemanian **au-pair bat** hartuko luke familia jator batek. ☎ 74 39 65

◆ Joan den larunbatean, hilak 12, Arregitorreko plazaxoan umeen **forro polar bat galdu zen.** Aurkitu baduzu deitu. ☎ 74 12 31

◆ Bataiorako **mantoia eta armarrio bat** behar du Caritas-ek. ☎ 74 15 09/74 12 57

◆ Zuzenbidean lizentziatuak **errenta aitortzen** egiten ditut. Tel: ☎ 74 01 13

Agurak

◆ Eskerrak **San Bartolome ikastolako 6. mailako ikasle, irakasle eta gurasoei** Gipuzkoako Atletismo Txapelketan parte hartu zuten kirolariei emandako animo eta laguntzagatik. Entrenatzailearen partez.

◆ Zorionak **San Bartolome ikastolako 6. mailako atletismo taldeari** Gipuzkoako txapelketan lortu zuten 2. postuagatik. Batez ere **Yudith, Eire, Gorane, Ainara, Maialen, Amaia, Guruzne, Maite** eta **Anari.** Spukyren partez.

◆ Zorionak **Mikel Anakaberi** bere familia osoaren eta lehengusurioen partez hilaren 5ean 5 urte bete zituelako.

◆ Zorionak **Egoitz Morari** Euskadiko txapelduna izan delako judoan. Familiaren partez.

◆ Zorionak **Saioa Rodriguezi** hilaren 4an 18 urte bete zituelako. Senide guztien partez.

Agurak

◆ Zorionak maiatzaren 6an 11 urte bete zituen neska bati. Zeinentzat ote? Eta zeinen partez?

◆ Superzorionak **Amaia Hidalgo**ri maiatzean bere superurtebetetzea delako, Jonatan eta Jonen partez. Ikusiko duzu a zer nolako belarrikada emango dizugun 11 urte betetzen dituzulako. Zorionak !!!!!

◆ Hilaren 4an superurteak bete zituen super **Norari** zorionak eta hamaika mila musu bere familia eta bereziki ahizpa eta ahizparen lagun partez.

◆ Super zorionak **Alberto Castrori** apirilaren 26an 11 urte bete zituelako. Ander, Mikel eta bere lagun partez.

◆ Supermegaultraplus zorionak **Elgoibarko ama guztiei** hilaren 4an amaren eguna izan zelako. Ama horietako baten seme-alabek. Ama: I love you!!!!

◆ Zorionak **Catiri** hilaren 8an urteak bete zituelako eta zorionak, baita ere, **Felixi** hilaren 13an bere urtebetetzea izango delako. Beraien seme Puri, Marti eta Inakiren partez.

◆ Zorionak **Mireni** maiatzaren 4an 14 urte bete zituelako. Familiaren partez, musu handi-handi bat.

◆ Zorionak **Jose Felix Telleriari** hilaren 6an urteak bete zituelako. Musu handi bat emazte eta seme-alaba Aritz eta Maialenen partez.

◆ Superzorionak **Sabin Gorostizari** hilaren 5an urteak bete zituelako bere ilobaren partez.

◆ Zorionak **Naia Membrillerari**, gaur, hilak 9, 5 urte bete dituelako, guraso eta anaia partez.

◆ Zorionak **Ibairi** Estibalizen partez.

◆ Zorionak **Maialen** eta **Ion Salabarrietari** familia osoaren partez.

◆ Zorionak **Ines Gabilondori** liburutegiko saria jaso zuelako. Sara, Estibaliz eta Oihanaren partez.

◆ Zorionak **Antton Alberdiri** hilaren 5ean bere urtebetetzea izan zelako. Bere mailako partez.

◆ Zorionak **Oihane Sanchez** hilaren 12an urteak beteko dituelako. 4. mailako partez.

◆ Zorionak **Mari Kruz Intxaustiri** maiatzaren 3an urteak bete zituelako. Ikastolako 4. mailako partez.

◆ Maiatzaren 15ean super 9 urte beteko dituen super **Ainhoari** zorionak eta hamaika mila tirakada belarritik bere lagun partez.

◆ Zorionak **Arantzari** maiatzaren 7an bere urteak izan zirelako. Musu mordo bat Itsaso, Leire eta Kimentzen partez.

Agurak

◆ Zorionak bi anaiei: **Kimetzi** bere lehen jaunartzea maiatzaren 11n delako eta **Imanol**ri maiatzaren 10ean urteak beteko dituelako. Etxeko guztien partez.

◆ Super zorionak **Denis Sanchez** hilaren 22an urteak beteko dituelako. Gelakoan partez.

◆ Zorionak **Joseba Sagastari** maiatzaren 8an urteak bete zituelako. Familiaren partez.

◆ **Javi Novoa** eta **Aitor Crespo** rentzat zorionak kuadrilaren partez. Eta "garbigailuaren" partez **Javi** rentzat bi musu oso-oso handiak. Zorionak eta askoz gehiago bete ditzatela.

◆ Zorionak **Aroa Balerori** gaur, maiatzak 9, 19 urte bete dituelako. Guraso, anaia eta amaren partez.

◆ Zorionak **Amaia Armendarizi** hilaren 2an 13 urte bete zituelako. Uxueren partez.

◆ Zorionak **Larari** maiatzaren 15ean 9 urte beteko dituelako. 3. mailako partez.

◆ **Antoni** zorionak 10 urte egiteagatik. Etxekoan partez.

◆ Superzorionak **Amaia Hidalgo**ri superultraplus lagun partez.

◆ Superultraplus zorionak **Markel Bengoari** astelehenean urteak bete zituelako. 5. mailako partez.

◆ Zorionak **Arantxa San Martini** maiatzaren 2an 37 urte bete zituelako. Seme eta familiaren partez.

◆ Zorionak **Aritz Calvori** bihar, larunbata, 12 urte beteko dituelako. Guraso eta anaia partez.

◆ Zorionak **Ion Odriozolari** maiatzaren 7an 7 urte bete zituelako. Asier, guraso eta aiton-amonen partez.

◆ Berandu baina Zorionak **Maddi Sanchez** lagun partez. Eskerrikasko goxoki-poltsagatik!

◆ Zorionak **Imanol Iturrinori** maiatzaren 10ean urteak beteko dituelako. Kimetz, Leire eta Lararen partez.

◆ Maiatzaren 7an urteak bete zituelako, zorionak eta musu handi bat **Arrate San Martini** bere alaba Olaiaren partez.

◆ Zorionak **Asier Arenali** apirilaren 22an 17 urte bete zituelako. Urte bat bakarrik falta zaizu nagusia izateko. Zorionak familia osoaren partez.

◆ Zorionak **Gorka Bengoetxeari** ostegunean, maiatzak 15, 13 urte beteko dituelako. Maider, Leire eta Nerearen partez.

Armagintzan
Artisanak
Maisuak

Ermuaranbide, 14 - P.K. 60
Tel: (943) 74 42 88
Fax: (943) 74 44 01
Tel. Int.: 34 - 43 74 42 88
Fax. Int: 34 - 43 74 44 01
Email: Kemen@lander.es



The advertisement features a large background image of a woman in a green jacket holding a book, and a smaller inset image of two students working at a desk. The text 'ELGOIBARKO HERRI- INSTITUTUA' is written in large, stylized letters, with '1997 - 1998' below it. The logo 'EHJ' is also visible.

LOGSE BATXILERGOAK A - D

- Natur eta Osasun Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Teknologikoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Automozioa, ibilgailuen elektromekanika (2.000 ordu)
- Txapa eta pintura (2.000 ordu)
- Barne Merkataritza (1.400 ordu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

- Enpresa gestioa eta administrazioa (2.000 ordu)

AURREINSKRIPZIOA

- Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloak: Maiatzaren 5etik 16ra
- Goi Mailako Heziketa Zikloak: Uztailaren 1etik 4ra

Tel: 74 44 80
Fax: 74 45 04